



EBAZPENA, 2017KO URTARRILAREN 20KOA, FUNTZIO PUBLIKOKO SAILBURUORDEARENA. HONEN BIDEZ, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ETA HAREN ORGANISMO AUTONOMOETAKO LAN POLTSA JAKIN BATZUETAN SARTZEKO TITULAZIOAK EGUNERATZEN DIRA UNIBERTSITATE SISTEMA BERRIRA EGOKITZEKO.

Gobernu Kontseiluak 2006ko maiatzaren 30ean hartutako Akordioak (2006ko ekainaren 13ko EHAA) zehazten du zer araudi aplikatu behar den langileak hautatzeko EAEko Administrazio Orokorrean eta haren erakunde autonomoetan aldi baterako zerbitzuak emateko, eta 4. eta 22. artikuluetan ezartzen du zer egoeretan eratu eta handituko diren lan-poltsak.

Funtzio Publikoko sailburuordeak 2006ko ekainaren 14an emandako Ebazpenaren bidez, kidego, aukera, eskala edo lan-kategoria jakin batzuetako edo antzekoetako lan-poltsak eratu ziren (1.2.1 artikulua), baita berariazko lanpostuetako edo lan-kategoria jakin batzuetako lan-poltsak ere (1.2.2 artikulua).

Aukera edo eskala finko jakin bateko lan-poltsa eratzean finkatzen da zer titulazio eskatuko den edo diren lan-poltsa horretan sartzeko. Titulazio horiek zeintzuk diren jakiteko, honako hauek aplikatzen dira (nahiz eta lan-poltsen bidez aldi baterako langileak hautatzeko izan): batetik, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren Erakunde Autonomiadunetako Kidegoak eta Eskalak Antolatzeke otsailaren 25eko 1/2004 Legeak karrerako funtzionario izateko ezartzen dituen irizpideak, eta, bestetik, lanpostu-zerrendak ezartzen dituenak.

Hori dela eta, aukera zehatzetako lan-poltsak dagokien aukerako titulazioa izan behar dute, eta eskala zehatzetako lan-poltsak, berriz, dagokien eskalako arautegian azaltzen diren titulazioetakoak izan behar dute. Lanpostu zehatzetako lan-poltsak, halaber, lanpostu-zerrendak eskatzen dituen titulazio berekoak izan behar dute.

Administrazio honek erabaki du lan-poltsa jakin batzuk handitu behar dituela IVAPek antolatuko dituen deialdi berezi batzuen bidez, Gobernu Kontseiluaren Akordioak 22.1 a) artikuluaaren arabera. Lan-poltsetan ez dagoenez izangairik edo betekizun jakin batzuk betetzen dituen izangairik (hizkuntza-eskakizuna eta graduondoak), honako lan-poltsa hauek handitzea erabaki da: Administrazio Goi Mailako Kidegoa, Goi Mailako Teknikarien Kidegoko Zuzenbideko Lizentzia Aukera; Goi Mailako Teknikarien Kidegoko Artxibo, Liburutegi eta Dokumentazio Eskala eta Osasun Publikoko Eskala; Orientatzailea eta Enpresako Medikua.



Kasuan kasuko lan-poltsan sartzeko eskatuko den titulazioa aukera edo eskala zein titulaziokoak diren horrexek zehaztuko du, eta baita lanpostu-zerrendan esaten denak. Titulazio horiek denak lizentziatura, ingeniaritza edo arkitekturako unibertsitate-tituluak dira.

- Administrazioako Goi Mailako Kidegoa
Lizentzia, ingeniaritza edo arkitektura
- Goi Mailako Teknikarien Kidegoa: Zuzenbideko Lizentzia Aukera
Zuzenbideko Lizentzia
- Goi Mailako Teknikarien Kidegoa: Artxibo, Liburutegi eta Dokumentazio Eskala
Lizentzia, ingeniaritza edo arkitektura
- Goi Mailako Teknikarien Kidegoa: Osasun Publikoko Eskala
Biologiako Lizentzia
Elikagaien Zientzia eta Teknologiako Lizentzia
Farmaziako Lizentzia
Medikuntzako Lizentzia
Kimikako Lizentzia
Albaitaritzako Lizentzia
Biokimikako Lizentzia
- Orientatzailea
Soziologiako Lizentzia
Zuzenbideko Lizentzia
Psikologiako Lizentzia
Pedagogiako Lizentzia
Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Lizentzia
Psikopedagogiako Lizentzia
Lanaren zientzietako Lizentzia
- Enpresako Medikua
Medikuntzako Lizentzia

Testuinguru horretan, eta Bolonia Planeko gradu-ko titulazioak ezartzeko hezkuntza-sisteman gertatu diren aldaketen aurrean, lan-poltsetan sartzeko eta lan-poltsak osatzeko eskatzen diren titulazioak eguneratu egin behar dira; horrela, unibertsitate-sistema zaharrean oinarrituta egun eskatzen diren titulazioak ez ezik, titulazio horien baliokidetzat jotzen diren gradu-tituluak ere kontuan izango dira lan-poltsetan sartzeko eta EAEko Administrazio Orokorreko eta haren erakunde autonomoetako aldi baterako langileak hautatzeko.

Hori egokitzapen tekniko bat da, indarrean diren graduako unibertsitate-titulu berriak ezartzeko eta unibertsitate-sistema zaharreko tituluak apurka-apurka azkentzeko egin behar dena. Unibertsitate-sistema zaharreko tituluak, dena den, ondorio akademiko eta profesionalak izaten jarraituko dute, honako manu hauetan xedatutakoaren arabera: EPOE Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuko xedapen iragankorretatik hirugarrena eta Unibertsitate-ikasketa ofizialak antolatzen dituen urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretuaren xedapen gehigarrietatik laugarrena. Era berean, EPOEk berak eskatzen du egokitzapen hori egiteko; izan ere, graduako tituluak eskatzen ditu A taldera sartzeko, eta unibertsitate-titulu zaharren eskakizuna mantentzen du aldi baterako.

Egokitzapen hori oro har egingo da, lanpostu-zerrenda aldatuta: lanpostu zerrendan, unibertsitate-titulu zaharrekin batera, berriak sartuko dira Administrazio honetako lanpostuetan eta haiei atxikitako kidego, au kera eta eskala edo lan-kategorietan.

Hori dena egokitu arte, ebazpen honen bidez, arestian adierazitako lan-poltsetan sartzeko titulazioak baino ez dira egokituko. Ondorioz, baliokidetasun horiek bakarrik ezartzen dira aldi baterako langileak hautatzeko, Gobernu Kontseiluak 2006ko maiatzaren 30ean hartutako Akordioak araututako ondorioetarako.

Azkenik, Gobernu Kontseiluaren akordio horrek xedatutakoarekin bat etorriz, ebazpen hau argitara emango da Administrazioak informazioa zabaltzeko erabili ohi dituen hedabide telematikoetan lan-poltsei buruzko informazio hau eskuragarri egon dadin.

Kontuan harturik, batetik, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen azaroaren 26ko Lehendakariaren 24/2016 Dekretuaren 6. artikulua emandako eskumena, eta, bestetik, Gobernu Kontseiluaren 2006ko maiatzaren 30eko Akordioaren azken xedapenetatik bigarrena, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eta haren organismo autonomoen aldi baterako zerbitzuak emateko langileak hautatzeari buruzkoa,

EBAZTEN DUT:

Lehenengo artikulua.- Graduako titulazioak sartzea

Eranskinean ezarritakoaren arabera, graduako titulazioak sartzen dira lan-poltza hauetara iristeko:

- Administrazioko Goi Mailako Kidegoa
- Goi Mailako Teknikarien Kidegoa: Zuzenbideko Lizentzia Aukera
- Goi Mailako Teknikarien Kidegoa: Artxibo, Liburutegi eta Dokumentazio Eskala
- Goi Mailako Teknikarien Kidegoa: Osasun Publikoko Eskala
- Orientatzailea
- Enpresako Medikua

Bigarren artikulua.- Lan-poltsetan sartzeko titulazioak

Eranskinean ezartzen diren titulazioek eta arautegiaren arabera baliokideak direnek irekitzen dute lan-poltsetan sartzeko bidea.

Hirugarren artikulua. Ondorioak.

Graduko titulazioak eta unibertsitate-sistema zaharreko titulazioak baliokidetze honek bakarrik balio du Administrazio Orokorraren eta haren organismo autonomoen lan-poltsetara sartzeko eta aldi baterako langileak hautatzeko.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.- Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsua jarri ahal izango zaio Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuari hilabeteko epean, berau Eusko Jaurlaritzako Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saileko web orriko www.euskadi.eus/lanpoltsak helbidean argitaratu, eta biharamunetik aurrera.

Bigarrena.- Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saileko www.euskadi.eus/lanpoltsak web-orrian argitaratu, eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak ebazpen honek.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko urtarrilaren 20a



GOVERNANTZA PUBLIKO
ETA AUTOGOBERNU SAILA
FUNTZIO PUBLIKOKO SAILBURUORDEA
PARTO. DE GOBERNANZA
Izpta.: ANDRES ZELARRETA OTAZUA

ERANSKINA

ADMINISTRAZIOKO GOI MAILAKO KIDEGOAK

Lizentzia, ingeniaritza, arkitektura edo gradua.

GOI MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOAK: ZUZENBIDETAKO LIZENTZIA AUKERA

- Zuzenbideko Lizentzia
- Zuzenbideko Gradua
- Zuzenbideko Gradua / Bachelor of Laws

GOI MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOAK: ARTXIBATEGIAK, LIBURUTEGIAK ETA DOKUMENTAZIOA ESKALA

Lizentzia, ingeniaritza, arkitektura edo gradua.

GOI MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOAK: OSASUN PUBLIKOA ESKALA

- Biologiako Lizentzia
- Biologiako Gradua
- Giza Biologiako Gradua
- Osasun Biologiako Gradua
- Ingurumen Biologiako Gradua
- Elikagaien Zientzia eta Teknologiako Lizentzia
- Elikagaien Zientzia eta Teknologiako Gradua
- Elikagaien Zientziako Gradua
- Elikagaien Berrikuntza eta Segurtasuneko Gradua
- Farmaziako Lizentzia
- Farmaziako Gradua
- Medikuntzako Lizentzia
- Medikuntzako Gradua
- Kimikako Lizentzia
- Kimikako Gradua
- Albaitaritzako Lizentzia
- Albaitaritzako Gradua
- Biokimikako Lizentzia
- Biokimikako Gradua
- Biokimika eta Biologia molekularreko Gradua
- Biokimika eta Biologia biomedikoetako Gradua

ORIENTATZAILEA

- Soziologiako Lizentzia
- Soziologiako Gradua
- Soziologia Aplikatuko Gradua
- Zuzenbideko Lizentzia
- Zuzenbideko Gradua
- Zuzenbideko Gradua / Bachelor of Laws
- Psikologiako Lizentzia
- Psikologiako Gradua
- Pedagogiako Lizentzia
- Pedagogiako Gradua
- Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Lizentzia
- Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Gradua
- Enpresen Zuzendaritzako Gradua
- Enpresen Zuzendaritzako Gradua - BBA
- Enpresen Zuzendaritza eta Administrazioko Gradua
- Enpresen Administrazioko Gradua / Business Administration
- Enpresen Administrazioko Gradua
- Fiskalizazio eta Administrazio Publikoko Gradua
- Psikopedagogia ko Lizentzia
- Laneko Zientzietako Lizentzia
- Laneko Zientzietako eta Giza Baliabideetako Gradua
- Laneko Zientzia, Lan-harreman eta Giza Baliabideetako Gradua

ENPRESAKO MEDIKUA

- Medikuntzako Lizentzia
- Medikuntzako Gradua